

**2007ko MAIATZAREN 3an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko maiatzaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Jon Tejeria Otermin
Iñigo Aginalde Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko martxoaren 1ean ospatutako ohiko udalbatzarra.
 - 2007ko martxoaren 29aan ospatutako ez-ohiko udalbatzarra.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2006 ekitaldiko Udal Aurrekontuaren Likidazioa onartzea, hala badagokio.
4. Larraulgo udalaren jabetzakoa den Herri Ostatu jatetxean sartzeari higiezinaren jabetza berreskuratzeko, hala badagokio.
5. Herri-Ostatuko jarduera baimenaren proiektua idazteko kontratu administratiboa esleitzea.
6. Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko 10.2 1/1, 10.2 1/2 eta 10.2 1/3 partzeletarako garajeen jarduera baimena ematea, hala badagokio.
7. 2007 ekitaldiari dagokion Udalsarea 21-i egin beharreko ekarpena onartzea, hala badagokio.
8. Tolosaldeko Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 2007 ekitaldiari dagokion ekarpena onartzea, hala badagokio.
9. I. U. A. jaunak aurkezturiko eskaeraren berri ematea.
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2007 urteko martxoaren 1eko Udalbatzarraren Ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2007 urteko martxoaren 29ko Udalbatzarraren ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

09/07 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 6koa, Repsol Butano, S.A baltzuari bi gas biltegi ipintzeko jarduera baimean ematea erabakitzen duena.

10/07 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 20koa, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2007ko lehenengo ekarpen moduan 7.522,31 euroko ekarpena burutzea erabakitzen duena.

11/07 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 23koa, Tolomendi, Tolosaldeko Garapen Elkarteari Agenda 21eko jarraipena egiteagatik 600 eurotako ekarpena burutzea onartzen duena.

12/07 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 24koa, 2007/05 zbk duen faktura zerrenda onartzen duena, bere kopurua 17,33 eurotako izanik.

13/07 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 26koa, 2007 urteko lehenengo hiruhilabeteari dagokion ura eta zaborraren erroldak onesten dituena.

14/07 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 27koa, Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 1.1 exekuzio unitateteko 1.1 (a.10.1.1/2) partzelatik 20,70 m2 zati bat banatzeko baimena ematea onesten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2006 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Alkate jaunak Udalbatzarrari aurkeztu dion 2006 ekitaldiko aurrekontuaren kitapen/likidazio proposamena.

Ikusirik Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2007 urteko martxoaren 1ean egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 2006 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Aurrekontuaren likidazioari onarpena ematea, ondorengo laburpena duena.

| | | |
|---|-----------|-----------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2006-12-31n: | | 60.698,94 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2006-12-31n: | | 2.827,16 |
| Aurrekontuko zordunak : | 1.230,85 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 1.596,31 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 0,00 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2006-12-31n: | | 51.268,24 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 0,00 | |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 0,00 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 51.268,24 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 0,00 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3): | | 12.257,86 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | 48,22 |
| 6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5): | | 12.209,64 |
| 7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina: | | 0,00 |

| | |
|---|-------------|
| 8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7): | 12.209,64 |
| 9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | -269.957,09 |
| 10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | -2.106,26 |
| 11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 159.815,16 |
| 12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 58.892,36 |
| 13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12): | -53.355,83 |
| 14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 0,00 |
| 15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 16.765,23 |
| 16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15): | 16.765,23 |

BIGARRENA.- Akordio honen berri Udaleko Kontuhartzailletza Zerbitzuari ematea bere islada Udaleko Kontabilitatean barneratu dezan.

HIRUGARRENA.- Likidazio espedientearen kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN JABETZAKOA DEN HERRI OSTATU JATETXEAN SARTZEA HIGIEZINAREN JABETZA BERRESKURATZEKO, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Larraulgo Udalak 2006ko abuztuaren 14an ospatutako udalbatzarraren osoko bilkuran udalaren jabetzakoa den herri-ostatu jatetxea eta berari atxikita dagoen etxebizitza ofizioz berreskuratzeko prozedurari hasiera ematea erabaki zuela.

Ikusirik Espaniako Konstituzioaren 18.2 artikulua xedatutakoaren arabera eta 30/1992 legearen arabera etxebizitza bortxaezina dela eta bertara sartzeko administrazioek titularraren baimena edo epaitegien baimena beharko dutela.

Ikusirik Larraulgo Udalak Donostiako administrazioarekiko auzietako 2. Zk-ko epaitegian aipatu baimena esktua zuela.

Ikusirik 2007ko apirilaren 16ko 188/2007 zenbakia duen autoak honela dioela:

Se autoriza al Ayuntamiento de Larraul el acceso al domicilio del inmueble denominado "Herri Ostatu" y vivienda aneja, sita en el edificio de la casa consistoriak de Larraul, para que: Primero: D. I. P. L. proceda al desalojo de las mismas con entrega de sus llaves. Segundo: Que se conceda auxilio judicial para proceder al desalojo de las mismas.

Ikusirik dagoeneko I. P. L. jaunak ez dela Herri Ostatu jatetxean bizi, ez dagoelako ur kontsumorik eta kanpoko atetik ikus daitekeela ez duela inolako gauza ez objektu pertsonalik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Herri ostatu taberna jatetxera sartzea bere jabetza berreskuratzeko, horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.

BIGARRENA.- I. P. L. jaunari akordio honen berri ematea.

BOSGARREN PUNTOA

HERRI-OSTATUKO JARDUERA BAIMENAREN PROIEKTUA IDAZTEKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA ESLEITZEA.

Ikusirik Larraulgo Herri Ostatu taberna-jatetxearen jarduera baimena beharrezkoa dela.

Ikusirik jarduera proiektua idazteko E. E. B. arkitektu andreak aurkeztu duen lan proposama, ondorengo baldintzetar egokitzen dela:

| | |
|--------------|--------------------------|
| Ordainsaria: | 2100 gehi dagokion BEZ-a |
| Epea | Hilabete batekoa. |

Ikusirik 2007 urteko apirilaren 27an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak idatzi duen txostena, zeinetan adierazten duen aholkularitza eta laguntza kontratu administratibo baten aurrean aurkitzen garela eta 2/2000 Errege Dekretu legegileak, ekainaren 16koa dena, Administrazio Publikoen Kontratu Legea arautzen duenak 201 artikuluan xedatutakoaren arabera 12.024,24 euro bitarteko kontratuek kontratu txiki izaera edukiko dutela eta gastua onartzerakoan zuzenean adjudikatu daitezkeela.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Larraulgo Herri Ostatu taberna jatetxearen jarduera proiektua idazteko aholkularitza eta laguntza kontratu administratiboa, E. E. B. arkitektu andreari adjudikatzea 2.100 eurotako prezioan (BEZ kanpo). Proiektuaren hiru ale, dagokion kolegioak bisatuta, eta Udalak emandako jarraibideak beteaz Larraulgo Udaletxean aurkeztu beharko ditu arkitektu andreak jakinarazpen hau jaso eta hilabetetako epean.

BIGARRENA.- Udalak prezioaren ordainketa proiektua eskuratu ondoren egingo du.

SEIGARREN PUNTOA

GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L BALTZUARI LARRAULGO AA.SS-ETAKO 2.1 EXEKUZIO UNITATEKO 10.2 1/1, 10.2 1/2 ETA 10.2 1/3 PARTZELETARAKO GARAJEEN JARDUERA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007ko otsailaren 23an J. L. B. jaunak Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuaren izenean Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko 10.2 1/1, 10.2 1/2 eta 10.2 1/3 partzeletarako garaje jarduera baimena eskatu zuela. Eskaerarekin batera Joleba Proyecto, S.L. baltzuak idatziriko jarduera proiektua aurkezten du Gipuzkoako Aparenjadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak sinatua.

Ikusirik eskatutako jarduera, 165/1999 Dekretuan xedatutakoaren arabera Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legean jasotzen den jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dagoela.

Ikusirik aipatu Dekretuak 3. Artikuluan araututakoaren arabera inguruko bizilagunei jakinarazpen pertsonala egin zitzaiela hamar laneguneko epea emanaz zegozkion oharrak tarteratzeko eta era berean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2007ko martxoaren hamabian eta ez dela inolako ohar zein iradokizunik jaso.

Ikusirik 2007ko 2007ko apirilaren 12an daleko Aholkularia den E. E. B. arkitektuak luzaturiko aldeko txostena.

Gaia azterturik, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko 10.2 1/1, 10.2 1/2 eta 10.2 1/3 partzeletarako garaje jarduera baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTOA

2007 EKITALDIARI DAGOKION UDALSAREA 21-I EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007 urteko apirilaren 10ean aurkeztutako idatzia non Udalsarea 21-eko 2007 urteari dagokion Udalak ordaindu beharreko kutoa, 300 eurotakoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udalsarea 21-eko partaidetzagatik 2007 urteari dagokion kuota, 300 eurotakoa dena, onartzea eta bere ordainketa burutzea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEA-TOLOMENDIRI 2007 EKITALDIARI DAGOKION EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007ko apirilaren 12an Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak aurkezturiko idatzia, non 2007 ekitaldiko elkartearen funtzionamendurako gastuei aurre egiteko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 1.988,91 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia azterteu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.988,91 eurotako ekarpena burutzea 2007 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BEDERATZIGARREN PUNTOA

I. U. A. JAUNAK AURKEZTURIKO ESKAERAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik I. U. A. jaunak 2007ko apirilaren 17an Larraulgo Udalean aurkeztutako idatzia non, J. U.rekin batera kalbarioko harrobia deritzon lursailetan ur-tuberia pasa nahi duela adierazten duen.

Ikusirik ur tuberiak izango duen ibilbidea adierazten duen plano a aurkeztu duela.

Ikusirik aurrekontua 900 eurotakoa dela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- I. U. A. jaunari kalbarioko harrobia deritzon lursailean ur tuberia bat jartzeko baimena ematea, eginiko obra edo infraestruktura herriari lagatu beharko diolarik eta gogoraraziz kontadore bat jarri beharko duela eta indarrean dauden ordenantza fiskalen arbera dagokion tasa ordaindu .

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arbera dagokion kitapena onartzea.

HAMARGARREN PUNTOA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

| | |
|-------------------------|----------|
| - EBA ERKIZIA BRION | 397,68 € |
| - TELEFONICA | 88,91 € |
| - TELEFONICA | 29,27 € |
| - REPSOLGAS | 183,65 € |
| - REPSOLGAS | 142,51 € |
| - EUSKALTEL | 48,83 € |
| - LEY-LAN | 204,00 € |
| - SWEDEN PRODUCTS, S.L. | 805,04 € |
| - REPSOLGAS | 17,33 € |
| - VODAFONE | 67,78 € |
| - TELEFONICA | 16,32 € |

| | |
|---------------------------------|------------|
| - TELEFONICA | 18,71 € |
| - IBERDROLA | 236,99 € |
| - IBERDROLA | 318,76 € |
| - IBERDROLA | 75,13 € |
| - IBERDROLA | 153,71 € |
| - IBERDROLA | 29,35 € |
| - IBERDROLA | 230,19 € |
| - IBERDROLA | 19,06 € |
| - IBERDROLA | 325,51 € |
| - ULAHI | 1.020,00 € |
| - ARGITU | 101,15 € |
| - GIPUZKOAKO URAK | 6.025,26 € |
| - IBERDROLA | 132,45 € |
| - GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA | 33,25 € |
| - GSM | 1.138,03 € |
| - IZFE, S.A. | 1.431,93 € |
| - BABESA SUZAI, S.A. | 55,77 € |
| - ATE INFORMATICA | 255,08 € |

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.601,65 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTOA **BESTE BATZUK.**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **Construcciones Echaide, S.A baltzuari Larraulgo Udal biltegia eraikitzeagatik ipinia zuen fidantza itzultzea, hala badagokio.**

Ikusirik 2007ko otsailaren 1ean Construcciones Echaide, S.A baltzuak udal biltegia eraikitzeagatik Larraulgo Udalean ipinitako fiantza, bost mila berreun eta hamazazpi euro eta berrogeitazazpi zentimokoa (5.217,47) dena, itzultzeko eskaera aurkeztu zuela.

Ikusirik 2007ko martxoaren 1ean ospatutako ohiko udalbatzarrean 2007ko martxoaren 1ean Udaleko aholkulari teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko txostenaren arira Construcciones Echaide, S.A baltzuari fidantza bueltatzeko udal biltegian zenbait lan egiteko eskatu zitzaiola.

Ikusirik 2007ko apirilaren 27an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko txostenean ondorengo dioela:

“... eskatu zitzaizkien akatsak konpondu direnez eta udal teknikariaren ikuspegi ona jaso dutenez, egokia iruditzen zait fidantza bueltatzea”.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Construcciones Echaide, S.A baltzuak aurkeztutako eskaera jende aurrean jartzea hamabost lanegunetako epean erreklamatzekorik dutenek dagozkion iradokizunak jartzeko eta erreklamaziorik aurkeztu ezean Construcciones Echaide, S.A baltzuari Larraulgo udalean ipinitako 2110000083 zenbakidun abala, 5.217,47 eurotako itzultzea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

- **Larraulgo Larrola baserriko ganadu usiategiari irekitze baimena ematea, hala badagokio.**

Ikusirik J. T. O. jaunak L. ganadu ustiategiaren irekitze baimena eskatu zuela.

Ikusirik jarduera proiektua osatzeko J. A. P. V. nekazaritza-ingeniariak sinatutako neurri zuzentzaileen ziurtagiri bisatua aurkeztu duela.

Ikusirik 2007ko apirilaren 27an Udaleko aholkulari teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko txostena non ondorengo adierazten den:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailordetzak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla ikusirik eta 2007ko apirilaren 27-an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen jarduera proiektuari

egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.

Gaia ezterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- L. baserriko ganadu ustiategirako irekitze baimena ematea.

- **Manuel Larramendi Kultur Bazkuneak, Manuel Larramendi Kultur fundazioaren inguruan bidalitako proposamena aztertzea.**

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkuneak, Manuel Larramendi Kultur Fundazioa sortzeko aurkeztu duen proposamena.

Ikusirik Larraulgo Udalarri fundazioa eratzeak sortuko lizkiokeen gastuak eta gaur egun duen egoera ekonomikoa.

Bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Manuel Larramendi Kultur Fundazioa eratzeko proposamena ez onartzea.

- Idazkari andreak Kutxa baltzuak Antton Amonarriz kultur gune berriaren ekipamendua finantzatzeko 10.000 eurotako dirulaguntza eman duela jakinarazi du.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HAMABIGARREN PUNTOA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta